

25 GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Aurki ikusgai: uztailak 7

BASQUE ARTIST PROGRAM 2015-19

Euskal artisten programa, 2015–19

- Datak: uztailak 8–irailak 6, 2022
- Komisarioak: Lucía Agirre eta Geanine Gutierrez-Guimarães, arte-arduradunak, Guggenheim Bilbao Museoa

Bere 25. urteurrenaren baitan, Guggenheim Bilbao Museoa hamar euskal artistaren obrak jarri ditu ikusgai, orain arte *Basque Artist Program-Euskal artisten programak* izan dituen bost edizioetan parte hartu dutenen artistenak, hain zuzen. Programa Bilboko eta New Yorkeko Guggenheim museoek batera jarri zuten abian 2015ean, eta EAEn jaio edo bertan bizi diren sortzaileei zuzendua dago. Urtero eskaintzen du aukera nabarmentzen hasiak diren bi sortzailek, bi museoetako arte-ardura taldeek hautatuek, Solomon R. Guggenheim Museumeko profesionalen eskutik New Yorkeko eszena artistikoari buruzko orientazio-saio trinko batean parte hartu eta prestakuntza-esperientzia berezi bat bizi dezaten, trukea eta garapen profesionala bultzatzea helburu hartuta. Dagoeneko zabalik dago 2022ko edizioa eta uztailaren 18an amaitzen da izen-ematea egiteko epea.

Honako hauek dira erakusketa osatzen duten artelanak sortu dituzten hamar artistak: Raquel Asensi, Nora Aurrekoetxea Etxebarria, Helena Goñi, Jon Gorospe, Gala Knörr, Maite Pinto, Karla Tobar Abarca, Alain Urrutia, Cristian Villavicencio eta Diego Vivanco. Identitatea, historia, errepresentazioa edo memoria indibiduala eta kolektiboa dira artista horiek beren lanean aztertzen dituzten gaietako batzuk, askotariko baliabideak erabilia aztertu ere: pintura, eskultura, paper gaineko obra, argazkilaritza, bideoa, kokapen zehatzeko instalazioa eta performancea, besteak beste.

Raquel Asensiren (Bilbo, 1989) obran naturala eta artifiziala uztartu egiten dira performancearen, hitzaren eta objektu eskultorikoaren bitartez. *Interfaze tetrad (I)* [*Tetrad Interface (I)*, 2019] lanean deskonposizioaren bidez naturara itzuliko den gorputzaren hedapen bihurtu du toskazko maskara bat; *abyss – ālis* (2022) lanean, berriz, algen arrastoak gres beiratuaren gainazalean “harritu” eta efektuak sortzeko erabiltzen ditu haien errautsak, itsaspeko oihanen deforestazioaren testigantza gisa.

Nora Aurrekoetxea Etxebarriak (Bilbo, 1989) eraikuntzako materialak erabiltzen ditu, normalean begien bistan ez daudenak. Material horiek euskarri bihurtuta, ezta inu, brontze eta zilarrezko eraztunak eta txirikordak txertatu eta zintzilikatzen ditu haietatik. *Koilaratxo (Spooning)*, 2022) lanean pladurrezko panelak hagaxka korrugatu soil eta zorrotzei esker doitu eta mantentzen dira elkarrekin zutik; eraztunek eta txirikordek, berriz — hau da, zenbait kulturatan pertsonen arteko harreman jakin batzuk adierazten dituzten arketipoek—, beren kasa funtzionatzen dute, elkarren beharrik izan gabe.

Gorputza/objektua/ingurunea erlazioaren garrantzia oso agerikoa da **Helena Goñik** (Bilbo, 1990) argazkilaritzaz, bideoaz eta performanceaz baliatuta artearen arloan egiten duen ikerketan. Irudimen kolektiboa aztergai hartuta, Goñik, bere 35 mm-ko kamerarekin, gertuko pertsonak eta eszenak erretratatu zituen New

Yorken bizi zela. *Caleben oinak* (*Caleb's Feet*, 2018) eta *Lynn liburuei eusten* (*Lynn Holding Books*, 2022) obretan erresistentziari, konpromisoari, gorputza fetitxe bihurtzeari eta giza irudiaren errepresentazio eskultorikoari buruzko alderdiak arakutzen ditu.

Jon Gorosperen (Gasteiz, 1986) *Hiri leunduak* (*Polished Cities*, 2018-21) argazki zuri-beltzez osatuta dago, hainbat hiritako, besteak beste Berlin, Milan, New York, Oslo eta Singapurreko eraikin garaikideetan hartuak eta ordena geometrikoan antolatuta. Irudi horietako batzuetan akrilikozko lamina gorriak aplikatu ditu —bizitza metropolitarraren erritmo frenetikoa aditzera ematen duen kolorea— gizarte distopiko bat berrinterpretatzeko helburuz.

Gala Knörrek (Gasteiz, 1984) Ipar Amerikako Mendebaldearen historiaren kontakizuna berraztertzen du. Horretarako, zenbait figura berreskuratzen ditu, zeregin nabarmen bat bete izan arren, ahanzturan geratu direnak herri-kultura iparramerikarrean. Hala, horren adibide dira *Cowboy gaztea* (*Young Cowboy*, 2022) eta *Cowboy gaztea begira* (*Young Cowboy Gazing*, 2022), zaldi gainean ageri den Brianna Noble gazte afroamerikarraren irudia oinarri hartuta. George Floyd gizon beltzaren hilketaren ondoren “Black Lives Matter” mugimenduaren baitan AEBn piztutako protesten argazkietako batean aurkitu zuen artistak Nobleren irudia.

Maitte Pinto (Logroño, 1993) memorian eta identitatean oinarritzen da, indibidualean nahiz kolektiboan; bere lanean, askotariko artxiboetako argazkiak berreskuratzen eta grabatu-teknikaren bidez birsortzen ditu. Bere akuaforteak 1937an ‘Habana’ baporean Southamptonera (Erresuma Batua) bidali zituzten milaka euskal umeetako batzuen argazkietan daude oinarrituta. Lekualdatze-, banaketa- eta galera-testuinguru horretan kolektibo bateko kide izatearen premiari buruz hitz egiten dute irudiek.

Margolan bihurrituak (*Twisted Paintings*, 2019) obran, **Karla Tobar Abarcak** (Quito, 1981) zentzumenei lotutako hizkuntza piktoriko bat berrasmutzen du artearen eta teknologiaren arteko sinbiosiaren bidez. Motxilan eskaner bat zeramala hainbat hiritako kaleetatik joan-etorrian jasotako irudiak digitalizatu ditu artistak, eta tolesak nabarmenduta bihurritu dituen panel bigunetan erakusten ditu. Gorputzaren keinu performatiboaren irudi zatikatua aditzera ematen duen ukimenezko irudi-sail bat da emaitza.

Alain Urrutiak (Bilbo, 1981) memoria indibidualaren eta kolektiboaren kontzeptuak aztertzen ditu *Memento* (2021 – prozesuan) lanean. Instalazio/mosaiko horretan, irudi berriak eta berreskuratutako aurkezten ditu garai bateko markoetan, eta artistak pieza berri bat gehitzen die urtero denboraren joana aditzera emateko. Latinezko *memento* terminoa erabiliz —‘gogoratu’ esapidearen baliokidea— Urrutiak oroitzapen zatikatuetan eta irudien ahalmenean oinarritutako memoriaren eraikuntza aztertzen du istorioak sortzeko.

Cristian Villavicencioren (Quito, 1984) *Txilibitua* (*Organismo hibridoak sailekoa*) [*Silbato* (de la serie *Organismos híbridos*, 2021)] obrak historia eta memoria kolektiboa uztartzen ditu tradizio indigena berreskuratuz eta berrinterpretatuz. Kolonurreko eskultura bat hiru dimentsiotan eskaneatuz, musikako haize-instrumentu bat sortu du, bi gorputz elkarlotuak osatutako molusku formako objektu bat, barnean duen urarekin txistu-antzeko oihartzuna sortzen duena, eta esanahi-geruza berri bat gehitzen dio ikuspegi garaikidea

GGUGGENHEIM BILBAO

txertatzean. Pieza horrekin lotutako bideoan, hura ere aretoan ikusgai, Amazoniako Alta Florencia komunitateko kide batek hainbat animalia-hotsen soinuak imitatzen ditu —Napo ibaian grabatu ziren, Yasuní parkean—, eta soinu horiek zeramikaren bibrazio musikalak gogorarazten dituzte.

Bideoaren, argazkiaren, performancearen eta instalazioaren bidez, **Diego Vivancok** (Bilbo, 1988) agerian uzten ditu testuinguru sozial, politiko eta kultural desberdinetan sortzen diren tentsioak. *Giza bandera* (*Human Flag*, 2013) lanean artistak bere burua irudikatzen du, eta dei egiten du identitate-ikurrei ematen zaien garrantziari buruzko hausnarketa bat egiteko. *Materiaren kontserbazioaren printzipioa* (*Principio de conservación de la materia*, 2019) lanean metaforikoki nabarmentzen ditu banderek eragiten dituzten pasioen kidetasunak, haien oihala errauts bihurtuz.

Azaleko irudia:

Karla Tobar Abarca (Quito, 1981)

<eskaner-motxila>proiektua_dokumentala (*<scanner-pack>project_documentary*), 2022

Bideoa, koloretan, estereo soinua, 30 min

Artistaren bilduma

Argazkiaren © Karla Tobar Abarca

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketin eta Komunikazio saila

Tel: 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsak erabiltzeko irudiak
Euskal artisten programa, 2015–19
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsako online irudien zerbitzua

Museoaren web-orriko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistratu zaitezke bai erakusketen bai eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzue, erregistratu zaitezte eta behar duzuen materiala deskargatu.

Dagoeneko erabiltzaile bazarete, sartu zuen erabiltzaile-izena eta -gakoa, eta sarbide zuzena izango duzue irudien deskargara.

- Ematen diren irudiak *Euskal artisten programa, 2015–19* erakusketarekin zerikusia duen publizitate editorialerako soilik erabili behar dira. Erakusketa 2022ko uztailaren 8tik irailaren 6ra bitartean egongo da publikoarentzat zabalik Guggenheim Bilbao Museoa.
- Irudiak osorik erreproduzitu behar dira, mozketarik, gaininpresiorik eta manipulaziorik gabe, azaletan ez ezik; kasu horretan, artistaren estudioak onetsi beharko du maketa. Erreprodukzioekin batera datu hauek adierazi behar dira: artistaren izena, obraren titulua eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua.
- Online argitaratutako irudiek babestuta egon behar dute segurtasun-neurri elektronikoko egokien bitartez.
- Irudi orok 1.000 pixeleko berezimina izan dezake gehienez, alderik luzeenean. Online argitalpenean fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin izango da deskargatu.
- Irudiak ezin dira transferitu hirugarren bati edo datu-base batera.
- Azaletarako irudien erabilerak kostu bat izan dezake eta alde zuzenetik obraren jabearen eta copyrightaren titularraren baimena behar izango du.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Eremuarekin +34 944 359 008 telefonoan edo posta elektronikoko helbide honetan: media@guggenheim-bilbao.eus

Raquel Asensi (Bilbo, 1989)

abyss – ā/lis, 2022

Gres beiratua, alga-errautsa eta zura

150 x 90 cm

Artistaren bilduma

Argazkia © Raquel Asensi



Nora Aurrekoetxea Etxebarria (Bilbo, 1989)

Koilaratxoa (Spoonring), 2022

Brontzea, eztainua, zilarra, hagaxka korrugatuak eta pladurra

Kokapen zehatzeko neurriak

Artistaren bilduma

Argazkiaren ©: Nora Aurrekoetxea Etxebarria



Helena Goñi (Bilbo, 1990)

Caleben oinak (Caleb's Feet), 2018

Tinta-zurrustazko inprimaketa

Ed.: 2/3 + 1 AP

80 x 120 cm

Artistaren bilduma

Argazkiaren © Helena Goñi



Jon Gorospe (Vitoria-Gasteiz, 1986)

Hiri leunduak (Polished Cities), 2018–21

Sublimazio bidezko inprimaketak aluminio gainean

Kokapen zehatzeko neurriak

Artistaren bilduma

Argazkiaren © Jon Gorospe



Gala Knörr (Gasteiz, 1984)

Cowboy gaztea begira (Young Cowboy Gazing), 2022

Olio-pintura eta olio-pinturazko barra mihise gainean

162 x 130 cm

Artistaren bilduma

Argazkiaren © Gala Knörr



Maite Pinto (Logroño, 1993)

Giza katea (Human chain), 2018

Akuaforteia eta urtinta paper gainean

Plantxaren neurriak: 34 x 25 cm

Papera: 46 x 38cm

Artistaren bilduma

Argazkiaren © Maite Pinto



GGUGGENHEIM BILBAO

Karla Tobar Abarca (Quito, 1981)

Margolan bihurrituak (Twisted Paintings), 2019

PVC gardenezko 4 biribilki, altzairu herdoilgaitzezko kablea, led argia eta kakoak

200 x 120 cm ale bakoitza, kokapen zehatzeko neurriak

Artistaren bilduma

Argazkiaren © Karla Tobar Abarca



Alain Urrutia (Bilbo, 1981)

Memento, 2021 – prozesuan

Olio-pintura liho gainean, zura, ispilua, lihoa eta antzinako offset inprimaketak

Kokapen zehatzeko neurriak

Artistaren bilduma

Argazkiaren © Alain Urrutia



Cristian Villavicencio (Quito, 1984)

Txilibitua (Organismo hibridoak sailekoa) [Silbato (de la serie Organismos híbridos)], 2021

Zeramika, ura eta sistema mekaniko programatua

50 x 40 x 50 cm

Artistaren bilduma

Argazkiaren © Cristian Villavicencio



Diego Vivanco (Bilbo, 1988)

Giza bandera (Human Flag), 2013

Irudi lentikularra

140 x 105 cm

Artistaren bilduma

Argazkiaren © Diego Vivanco

